

MUSIKA ESKOLAKO ZERBITZUAK

ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

Ikasleen eskubideak

- Kalitatezko irakaskuntza jasotzeko eskubidea eta horretarako musika eskolan dauden baliabide materialak erabiltzeko aukera izatea.
- Eskola errendimenduari dagokionez, objetibotasunez balioetsia izatea.
- Bakoitzak bere ordezkariak hautatzeko aukera izatea, eskola gobernu-organoen araudiari jarraituta.
- Musika eskolak eskaintzen dituen zerbitzuen tratua zuzena, eta pertsonalizatua izateko aukera eman; Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak erabilia, beti ere, euskera lehenetsita.
- Eraikineria inolako bereizkeriarik gabe etortzeko aukera izan.
- Edozein iradokizun, kexa, erreklamazio edo esker onen eskaera aurkezteko aukera.
- Indarrean dagoen legearen arabera datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta pribatutasuna bermaturik izatea.

Ikaslearen betebeharrak

- Eskoletara etortzea eta ikasgaia ikasteko behar den denbora eta baliabide materialak erabiltzea.
- Musika eskolak antolatutako jardueretan parte hartu eta hori bideratzeko behar diren entsegetara etortzea.
- Era ordenatuan errespetuzko jarrera eduki bai pertsonetikiko, bai musika eskolako ondasun higigarri eta higiezinetikiko, kalterik eragin gabe.
- Helbidea, telefonoa eta bankuko datuak aldatzean edo eta baja ematean, berri eman idazkaritzan.
- Kuotaren ordainketa errespetatu eta betetzea.

Familia eta tutoreen eskubideak

- Hezkuntzari dagokion arloetan seme alaben eskubidea eta interesak babestu.
- Irakaslearekin ikasturtean zehar tutoretzak egin.
- Bakoitzak bere ordezkariak hautatzeko aukera izatea, eskola gobernu-organoen araudiari jarraituta.
- Musika eskolak eskaintzen dituen zerbitzuen tratua zuzena, eta pertsonalizatua izateko aukera eman; Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak erabilia, beti ere, euskera lehenetsita.
- Eraikineria inolako bereizkeriarik gabe etortzeko aukera izan.
- Edozein iradokizun, kexa, erreklamazio edo esker onen eskaera aurkezteko aukera.
- Indarrean dagoen legearen arabera datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta pribatutasuna bermaturik izatea.

Erabiltzaileengandik itxaroten duguna

- Artatzen dituzten langileak errespetuz eta begirunez tratatzea
- Udalari adierazitako datuetan aldaketarik balego, udalari jakinaraztea.
- Araututa dauden epeen barruan eskariak aurkeztu edo ordainketak egitea.
- Udaleko datuetan edo eskaintzen den informazioan akatsik ikustekotan, horren barri ematea.



- Kexen eta iradokizunen bidez edo herritarrek dituzten beste bideak erabilia, zerbitzuak hobetzeko prozesuetan parte hartzea.
- Udal baliabideen erabilera egokia (bulego, espazio, makinak zein ekipamendua).
- Zerbitzuak duen ordutegia errespetatzea.

